


SOZIOLOGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTEA

2014ko
MEMORIA



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTEA<

2014ko
MEMORIA

**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTEA**

Martin Ugalde
Kultur Parkea
20140 Andoain
Tel.: 943 592 556

Luzarra Kalea 10
48014 Bilbo

kluster@soziolinguistika.eus
www.soziolinguistika.eus
www.facebook.com/slklusterra
<https://twitter.com/slklusterra>



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA ELKARTEA

OHOREZKO BAZKIDEA




EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUNDE BAZKIDEAK

 EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila	 BAI Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea
 EHU-UPVko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila	 Euskaraz Kooperatiba Elkartea (AEK)
 EHU-UPVko Soziologia II Saila	 Gipuzkoa Donostia Kutxa
 Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea	 Laboral Kutxa
 Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea (HUHEZI)	 Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea (NETELE)
 Eusko Ikaskuntza	 Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
 Euskal Herriko Ikastolak ikastolenelkartea	 Hernaniko Udala
 ELHUYAR Aholkularitza	 Sakanako Mankomunitatea
 ARTEZ Euskara Zerbitzua	 Zumaia Udala
 EMUN Kooperatiba	 Bermeoko Udala
 Ebete Hizkuntza Zerbitzuak	 Erandioko Udala
 URTIXINTXA kalitatezko herritarak	 Donostiako Udala
 Topagunea. Euskara Elkarleen Federazioa	 Errenteriako Udala
NORBANAKO BAZKIDEAK: 74	 Aztiker





Aurkibidea

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA: ERAKUNDE BAZKIDEAK	5
SARRERA	8
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN ANTOLAKETA	9
Antolaketa-eredua: Klusterra	9
LAN ARLOAK	10
LANKIDETZAK	11
PROIEKTUAK	12
IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA	13
1. Arrue (ikasleen eskola giroko hizkuntza erabilera)	13
2. Liderak eredu	16
3. Aldahitz (hizkuntza ohituren aldaketa)	18
4. Eralan 3	20
5. Gazteak eta ahozko hizkuntza hezkuntza arautuan – Tolosako laborategia	22
6. Gazteak eta ahozko hizkuntza hezkuntza arautuan – Berbekin programa	24
7. EAS (Euskararen adierazle sistema)	25
8. Hizkuntzen ahozko kale erabilera: herrietako neurketak	26
9. DIKOMA: diskurtsoa landuz komunitatea ahalmentzeko proiektua	27
10. Jendaurrean erabili	29
11. Datu soziolinguistikoen bilduma	30
EZAGUTZAREN KUDEAKETA	32
1. BAT Soziolinguistika Aldizkaria	32
2. Hausnartu. Euskal Soziolinguistika sariak	34
3. Euskararen normalizazio kasu aurreratuak	35
4. Udaltop Soziolinguistika jardunaldia	36
5. Formazio saioak	38
6. Internet: webgunea eta sare sozialak	39



Sarrera

Txosten honetan jasotzen dira Soziolinguistika Klusterraren ezaugarri garrantzitsuenak eta 2014. urtean erakundetik landu diren proiektu nagusiak.

Soziolinguistika Klusterrak arloko ikerketa proiektuak egiten jarraitu du eta sendotu egin du bere ibilbidea. Sendotze horrek hainbat alderdi izan ditu aurreko ur-

teetako ibilbideari jarraiki. Alde batetik, proiektuen alorrean zenbait proiektu berriri ekin diogu eta aurretik zetozen beste zenbaiti jarraipena eman zaie. Beste alde batetik, finantzaketa bideak finkatu dira hiru erakunde nagusirekin hitzarmenak sinatuta: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Kutxa Fundazioarekin.



Soziolinguistika Klusterraren ANTOLAKETA


ANTOLAKETA-EREDUA: KLUSTERRA

Soziolinguistika Klusterra irabazi asmorik gabeko elkartea da eta aldi berean Berrikuntzako Bitarteko Erakundea izaera aitortua du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragile gisa.

Klusterrak izaera ezberdina duten entitateak konektatzen ditu elkarren artean: administrazio publikoa, unibertsitateak, gizarte-eragileak eta esku-hartze eragileak. Guztiek dute helburu euskararen biziberri-tze-ahaleginean ahalik eta modu eraginkorrean ari-

tzea. Klusterrak lortzen du horrela interes partekatua duten entitateen, enpresen, eta erakundeen artean talde-lanak sendotzea eta sinergiak sortzea.

Kooperazio-egitura horiek baliatuz ezagutzaren hedapenari bide egitea du helburu Klusterrak eta ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea. Horregatik erakunde desberdinen artean eginiko proiektuek lehen-tasuna izan ohi dute gurean.






Lan arloak

Soziolinguistika Klusterra soziolinguistikaren jakintza eremuan kokatuko dela aitortzea ez da nahikoa bere jarduna norabide egokian bideratu nahi bada. Bistan denez, soziolinguistikak zientzia arloko beste diziplina batzuk baino ibilbide laburragoa eta "pisu" txikiagoa du (medikuntza, fisika edo matematikarekin konparatuta, adibidez). Hori horrela izanik ere, soziolinguistika jakintza arlo zabala da bere baitan biltzen dituen eremuei dagokionez.

Zabaltasun horretan, hizkuntzak gizarte gertaera gisa ulertzeko soziolinguistikaren prismatik egin daitezkeen ekarpenez gain oso kontuan hartzekoak iruditzen zaizkigu zientziaren beste diziplina batzuetatik egin daitezkeen ekarpenak ere. Hala nola, gizarte-antropologiatik, gizarte-psikologiatik, pedagogiatik, filologia eta hizkuntzalaritzatik eta komunikazio zientzietatik. Ondorioz, diziplina horien ekarpenek ere zentzua dute Klusterrak garatu nahi dituen proiektuetan, betiere, hizkuntzak gizarte-gertaera gisa ulertu asmoz. Diziplina horiekiko zubiak eraikitzea beraz, beharrezkoa eta lagungarria izango da Klusterraren jardunean.

Bost lan-arlo zehaztu dira:

- 1. Hizkuntza-ukipeneko soziolinguistika dinamikoa.**
- 2. Hizkuntza-erabileraren alderdi soziala.**
- 3. Hizkuntza-jokaeren aldaketa-prozesuak.**
- 4. Hizkuntzen transmisio soziala.**
- 5. Hizkuntzen inguruko diskurtsoak, balioak eta jarrerak.**






Lankidetzak

Soziolinguistika Klusterrak bere proiektuen eta estrategien garapenerako hainbat lankidetzak hitzarmen sinatu ditu. Honako hauek dira lankidetzak hitzarmen nagusiak:

- > [Euskal Herriko Unibertsitatearekin](#) oinarritzko lankidetzak hitzarmena.
- > [Euskaltzaindiarekin](#) oinarritzko lankidetzak hitzarmena.
- > [HABE liburutegiarekin](#) oinarritzko lankidetzak hitzarmena.
- > [Langunerekin](#) oinarritzko lankidetzak hitzarmena.
- > [Xarxa Cruscat-ekin](#) oinarritzko lankidetzak hitzarmena.
- > [Mintzolarekin](#) oinarritzko lankidetzak hitzarmena.
- > [Bergarako Udalarekin](#) "Gazteak eta ahozketasuna" egitasmoa abian jartzeko hitzarmena.
- > [Kutxa Gizarte Ekintzarekin](#) euskararen normalizaziorako soziolinguistika ezagutza garatzeko eta zabaltzeko hitzarmena.
- > Euskal Herriko Unibertsitateko [Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrarekin](#) oinarritzko lankidetzak hitzarmena.
- > Mondragon Unibertsitateko [HUHEZI fakultatearekin](#) Eralan 3 proiektuaren eta Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak proiektuen zuzendaritzarako.






PROIEKTUAK

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

- 1 **ARRUE (ikasleen eskola giroko hizkuntzen erabilera)**
- 2 **Liderrak eredu**
- 3 **Aldahitz (hizkuntza-ohitura aldaketa)**
- 4 **EraLan3 (euskararen erabilera lan munduan)**
- 5 **Gazteak eta ahozko hizkuntza hezkuntza arautuan – Tolosako laborategia**
- 6 **Gazteak eta ahozko hizkuntza hezkuntza arautuan – Bergarako laborategia**
- 7 **EAS (Euskararen adierazle sistema)**
- 8 **Hizkuntzen ahozko kale erabilera: herrietako neurketak**
- 9 **DiKomA: diskurtsoa landuz komunitatea ahalmentzeko proiektua**
- 10 **Jendaurrean erabili**
- 11 **Datu soziolinguistikoen bilduma**

EZAGUTZAREN KUDEAKETA

- 1 **BAT Soziolinguistika aldizkaria**
- 2 **Hausnartu - Euskal Soziolinguistika Sariak**
- 3 **Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak**
- 4 **Udaltop Soziolinguistika Jardunaldia**
- 5 **Formazio saioak**
- 6 **Internet: webgunea eta sare sozialak**



PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Soziolinguistika Klusterraren misioa soziolinguistika ezagutza sortzea da. Horretarako ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak egiten ditugu arloko irakasle, ikerlari, adituen eta bazkideen zuzendaritza edota lankidetzarekin. Modu horretara, unibertsitatearen eta gainerako eragileen arteko zubi lana egitea nahi dugu.

1 ARRUE (IKASLEEN ESKOLA GIROKO HIZKUNTZA ERABILERA)

Zuzendaria: Iñaki Martínez de Luna (EHU)
Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
(p.suberbiola@soziolinguistika.eus)

Badira dagoeneko hamabi urte Arrue Proiektua sortu eta abian jarri genuenetik, hain zuzen ere ikasleen eskola giroko hizkuntza erabilera aztertzeko.

2014-2015 ikasturteko lan-ildo nagusiak:

Sei izan dira 2014-2015 ikasturtean lehentasunez lantzeko ildoak:

1. 2015ean Ebaluazio Diagnostikoa probaren baitan inkesta bidezko datu jasoketa prestatzea
2. Datuen analisiak: 2011 eta 2013ko datuen gaineko analisi gehigarriak eta 2015eko analisien aurre-prestaketak
3. Datu-jasoketa osagarrien lanketa
4. *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua* argitalpenaren aurkezpena eta zabal-kundea
5. Antzerako aztergaiak dituzten ikerlerroekiko lankidetzak (nazioartean bereziki)
6. Arrue datutegiaren esplorazioak

Babesleak:



Lankidetzak:



Lan-ildoen deskribapena eta ikasturteko lanak:

1. **2015ean Ebaluazio Diagnostikoa probaren baitan inkesta bidezko datu jasoketa prestatu da.**

2011. urtean egin genuen lehen aldiz LMH4ko eta DBH2ko EAEko ikastetxe eta talde guztietan Arrue proiekturako datu-jasoketa, ISEI-IVEIk burutzen duen Ebaluazio Diagnostikoaren probetan hizkuntza-erabilerarekin loturiko galdera-sorta bat txertatuz. Ondoren, 2013. urtean egin zen bigarren aldiz Arruerako datu-jasoketa proba berean, kasu horretan galdera-sorta laburrago bat baliatuz.

2015. urteko otsail eta apiril bitartean berriz egingo du ISEI-IVEIk Ebaluazio Diagnostikoa EAEko ikastetxe guztietan. Lau urte igarota 2011. urteko probatik, urte hartan LMH4n ziren ikasleak 2015ean DBH2n dira orain, eta beraz urte honetako datu-jasoketek azterketa longitudinalak egiteko aukera eman-

PROIEKTUAK**IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA**

go du, hau da, ikasle-unibertso berdintsuen 2011ko eta 2015eko emaitzen alderaketa. Horri begira 2014an hiru egiteko nagusi burutu dira:

- 2015erako galdera-sorta zehatza prestatzea
- Galderak txertatzea Ebaluazio Diagnostikoaren aplikazio informatikoan
- Aplikatzaileek eta irakasleek eman beharreko azalpenak eta argibideak

2. Datuen analisiak. 2011 eta 2013ko datuen gaineko analisi gehigarriak egin dira.

Analisi gehigarriak egin dira, batetik, 2013ko emaitzen gainean behin betiko ondorioak adostu eta emaitzak kaleratzeko. Bestetik, 2011 eta 2013ko datuen gainean, ikasle-tipologiarik interesgarrienak zein diren definituz eta tipologien arabera analisiak eginaz. Azkenik 2015eko datuen analisien aurre-prestaketak burutu dira.

Egin dira, halaber, emaitzen aurkezpenak, horien artean Eskola Hitzun bila (aurkezpena) eta Hizkuntzen Lantaldea (aurkezpena).

Amaitzeko, gaztelaniazko txostena osatu da.

3. Datu-jasoketa osagarrien lanketa:

2011. urteaz geroztik, Ebaluazio Diagnostikoa probaren bitartez modu kuantitatiboan eta EAEko unibertso osoan LMH4 eta DBH2ko ikasleei eginiko galderak dira Arrue proiektuan *ikasleen eskola giroko hizkuntza-erabileraren fenomeno*a aztertzeko dugun informazio-iturri nagusia.

Beste edozein metodologiak bezala ordea, 2011ean eta 2013an baliatu dugunak ere baditu bere mugak eta bere gabeziak. Muga horiek osatzeko edo gainditzeko modu ezberdin asko egon litezke, eta horien helburua litzateke, nolabait, Arrue Proiektuaren diseinu metodologikoa garatzen jarraitzea.

Garapen metodologiko horri begira, 2013-14 ikasturtean zehar egin dira zenbait lan, eta horietako batzuk jaso dira 2014ko uztaileko Jarraipen-batzordean aurkezturiko "Diseinu metodologikoaren garapena. Arrue ikerlerroa: aurrera egiteko proposamenak" txostenean.

2014-2015 artean, ondokoak dira burutu diren jarduerak:

- Arrueren oinarri den probaren osagarri izan litezkeen datu-jasoketa eta metodologiaren proposamen zehatzak egitea.
- Bestetik, proposatzen den datu-jasoketa edo metodologiaren arabera, euskal esparru akademikoan gai horretan eskarmentua duten ikertzaileekiko harremana eta lankidetzak (halakoetarako aukera egokirik suertatzen bada).
- Azkenik, gaiari ematen zaion garapenaren arabera, litekeena da datu-jasoketa eta metodologia berri horietarako lehen materialak sortzea: galdetegiak, metodologia edo proba zehatzak, etab.

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

4. *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua argitalpenaren aurkezpena eta zabalkundea burutu da.*

Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioen zabalkundea egin da. Bai bertsio elektronikoak dagokion webguneetan ikusgai jarritz, eta bai papezko bertsioen zabalkundea eginez ere. Aipaturiko hiru lanak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan egin dira.

5. Antzeko aztergaiak dituzten ikerlerroekiko lankidetzak burutu dira (nazioartean bereziki).

Hitzarmeneko laugarren lan-ildoari lotuta, *Ikasleak hiztun* lanaren argitalpena eta zabalkundea baliatu dugu harreman horiek lantzeko. Argitalpena oinarri dela, harreman-bideak zabaltzeko saioa egin da, euskal eremuan eta bereziki nazioartean, eskola-giroko ikasleen erabilerak aztergai dituzten ikerlerroekin edota horretan ari diren ikertzaileekin.

Harreman-bide eta lankidetzak horietan urratsik eman izan dugu lehenago ere, besteak beste, 2013. urtean, Mercator Research sareak Frisian antolatutako mintegian hainbat ikertzaileekin kontaktua eginez (Gales, Eslovenia...).

2014an honakoak izan dira burututako jarduerak:

- EuJAL artikulua argitaratu da
- "New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges" sinposioan hitzaldia egin da

Nazioartean bezala, EH mailan ere, argitalpenaren zabalpenaren harira, gaia-rekin lotura duten ikerketen berri jasotzea landu da, joan-etorriko harremana bultzatuz ikertzaile eta taldeekin. Horretarako abiapuntua, *Ikasleak hiztun* argitalpen horretan lankide izan dugun ikertzaile eta adituen taldea bera izan da.

6. Arrue datuen esplorazioa

Unibertsitateko irakasle, ikertzaile eta ikerketa taldeek, erakunde publikoetako ordezkariak eta beste eragile batzuk ere, ikasturteko jardunean aurreikusita ez dauden Arrue datutegiaren ustiapen bereziak eskatzeko aukera izan dute aldiro-aldiro sor daitezkeen informazio edo ikerketa-premiei erantzuteko.

> Informazio gehigarria: <http://www.soziolinguistika.eus/arrue>

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

2 LIDERRAK EREDU

Zuzendaria: Daniel Hermosilla
Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
(p.suberbiola@soziolinguistika.eus)

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Lankidetzak:



Eralan 3 proiektua garatu zen 2012-2013-2014 urteetan. 2014an, 2012an eta 2013an garatutako ikerkuntza-ekintza esperientziak amaitzen eta amaitu ondorengo lanetan jardun dugu: zehazki, ezagutzaren transferentziari lotutako zereginetan (Udaltop Soziolinguistika Jardunaldia, Eralan 3n metatutako esperientzia eta ezagutza jasoko duen argitalpenaren prestaketan, besteak beste).

2014an, ordea, ez gara horretara mugatu. Izan ere, Eralan 3n Herri administrazioetako erabilera planak berritzen Garapen Taldean landutakotik abiatuta, agintari eta zerbitziburuen praktika linguistikoan eragin genezakeela ikusi da horretarako prozedurak abiaraziz gero.

Eragite horri begira, erabaki da merezi duela lidergo eraldatzailearen bidetik orain arte egindako lanari jarraipena ematea, ikusi delako hainbat kasutan lagundu egingen diola euskara teknikariari bere erakundeko lider eta arduradunekin lan egiteko modu berri batera eta harreman-modu berrietara iristen.

Gauza jakina da lider instituzionalen portaerak eta haien ereduak nolako eragina duen, bai erakundeen baitan eta baita herritarrengan ere. Ardura postuetan dauden lider askok, ordea, ez du bere jokaeraren eragin biderkatzailearen kontzientziarik izaten, eta hala den kasuetan ere, askotan ez du eskura izaten baliabiderik zein erreferentziarik eredugarriak izan litezkeen portaerak garatu ahal izateko.

Ahalmentze soziolinguistikoa da eskuratu beharreko baliabide horietako bat; gutxieneko oinarri batzuk eskuratzea, berarentzat desiragarri eta beste askorentzat eredugarri izango diren portaeretara iritsi ahal izateko, prozesu baten bitartez.

Erakundeetako liderrekin halako prozesuak antolatu eta garatzea da 2014-2015 epean lankidetzan gara daitekeen lan-ildoetako bat.

Eralan 3 zikloan (2012-2013), Herri administrazioetako erabilera planak berritzen Garapen Taldean landuriko gaietako bat izan zen liderren portaera eredugarriena. Oso positiboki baloratu zuen Garapen Taldeak gai horretan eginikoa, eta potentziala ikusi zitzaion garatzen jarraitzeko.

Aipatu proiektuaren baitan, interbentzioak egin ziren gai horren inguruan administrazio publikoko erakunde ezberdinetan, besteak beste: Eibarko Udalean, Portugaleteko Udalean, Lasarte-Oriako Udalean eta Gipuzkoako Foru Aldundian (besteak beste). Eginiko interbentzioetan landutakoarekin badago nahikoa oinarri (bai teorikoki eta bai material praktikoki aldetik) datozen hilabete/urteetan ildo bereko esperientzia gehiago garatzeko.

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Halako proiektu baterako interesa jaso izan dugu Soziolinguistika Klusterrean, bai maila teknikoan (euskara teknikariak), bai eta erakundeen arduradun politikoeekin izandako harremanetan ere (besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika-rako Sailburuordetzatik). Era berean, Bizkaiko euskara teknikariak saretzen dituen Alkarbide erakundetik eskaera zuzena ere jaso dugu, 2014ko ekainean.

Orain arte aipaturiko erakundeez gain, Soziolinguistika Klusterrak oso interesgarri ikusten du arloko aholkularitza enpresei ere halako proiektu batean parte hartzeko aukera luzatzea; bai beraiek horretan izan dezaketen interesagatik, bai eta gai honen inplementazio eta garapenean egin dezaketen ekarpen nabarmenagatik.

Lan ildoaren helburu nagusia litzateke administrazio arloan lider instituzional direnekin lan egitea hizkuntza-portaera eredugarriak ipar harturik. Besteak beste, udaletan eta beste administrazio batzuetan agintari direnen artean hizkuntza-portaera eredugarriak sustatzeko eta errazteko bideak jorratzea, edota agintari horien hizkuntza-ahalmentzean eta ahalmentze soziolinguistikoan urrats berriak ematea.

Proiektu honen lanketan, 2008tik hona Soziolinguistika Klusterraren baitan hizkuntza-lidergoa eta lidergo eraldatzailea gaien inguruan landurikoa izango da oinarri, bai maila teorikoan landu izan duguna eta baita maila metodologikoan zein esperimenterik egin den bidea. 2014ko udazkenean bi zeregin nagusi izan ditugu:

Udaletan garatuko den proiektua: Eralan 3:

Eralan 3ren baitan *Herri administrazioetako erabilera planak berritzen* Garapen Taldean metatutako ezagutzak eta eskarmentuak nahikotasun-maila egokia dute aholkularitzek lidergo eraldatzailearen inguruko praktika eredugarriak sustatzeko helburuarekin interbentzioak egin ditzaten.

Hori gertatu aurretik, ordea, tarteko fase bat irudikatu dugu eta horretan aritu gara 2014an, non Eralan 3tik (*Herri administrazioetako erabilera planak berritzen* Garapen Taldeak) sortutako materiala eta interbentzioko emaitzetatik abiatuta, aholkularitzek esku-hartzeko prototipo ahalik eta zehatzena izan duten eskura.

Interbentziorako prototipo bat irudikatu da honako puntu hauek kontuan hartuta, besteak beste: Eralan 3ko ezagutza, sortutako materiala -fisikoa eta esperientziakoa- modu ordenatuan transferitzeko diseinua egitea.

Bertan, Eralan 3+ esku-hartzearen plangintza zehatzerako oinarriak proposatu dira; alde batetik, interbentzioaren ezaugarri orokorrak, helburu nagusi eta partzialak, ebaluazio-moduak edo zuzenketa-tresnak zehaztuz, eta, bestetik, xede-taldearen arabera baldintzak, esku-hartze zehatzen diseinua, intentsitatea, eta gainerako ezaugarriak aurreikusiz. Horrez gain, arloko aholkularitza enpresekin gaiaren inguruko lanketa egin da, halako proiektuei begira ikusten dituzten aukerak, dituzten premiak eta beste hainbat elementu haiekin baloratuz.

Dokumentu batean jaso dugu landutako Eralan 3+ proiektuaren diseinua.

PROIEKTUAK

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Hizkuntza lidergoa eta lidergo eraldatzailea kontzeptuak garatzeko eta berritzeko ikerkuntza-ekintza proiektu baten definizioa. Eralan 4.

Ikerkuntza-ekintza proiektu bat definitu da liderren hizkuntza-portaera eredugarriren gaiari heltzeko, Eralanen orain arte egin denari jarraipena emango diona (garapena, berrikuntza, ikerkuntza-ekintza eta esperimentazioa).

Soziolinguistika Klusterrean garatzen ditugun hainbat proiekturen osagarritasun eta lankidetzak planteamendua egon da proiektu honen antolaketaren atzean ere: alde batetik, ezagutza teoriko eta akademiko aurreratua bilatu da (unibertsitate esparrutik) eta bestetik, ezagutza hori lankidetzak zuzenean jarriko da aplikazioaren eremuan ari diren teknikari eta profesionalekin, plan eta egoera konkretuen testuinguruan.

3 ALDAHITZ (HIZKUNTZA OHITUREN ALDAKETA)

Zuzendaria: Pello Jauregi
Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
(p.suberbiola@soziolinguistika.eus)

Aldahitz ikerketaren aztergai nagusia hizkuntza ohituren aldaketa prozesuak dira. Zehazki, finkatutako harremanetan, eguneroko edo ohiko hizkuntzan gaztelaniatik euskarara gertatzen diren aldaketa prozesuak ditu aztergai nagusi ikerketa lerro honen.

Babesleak:



Lankidetzak:



Aldahitz "Eusle" esperientziak:

2013an eta 2014an zehar egin dira "Eusle" metodologian oinarrituriko lehen zazpi esperientzia edo aplikazio praktikoak: Tolosako Udaleko bi sailetan [2013], JMA enpresan [2013], Eusko Jaurlaritzako bi sailetan [2014], Zarauzko Udaleko sailean [2014] eta Fagor Arrasateko Etxebarriko plantan [2014]. Esperientzia pilotu horiek, EHUKo irakasle den Pello Jauregi doktoreak zuzendu ditu, Aldahitz batzordearen laguntzaz, eta hizkuntza-erabilera kontuetan ikuspegi funtzional sistemikoaren azken ekarpenetan oinarritua egon da.

2014ko udazkenean aipaturiko zazpi esperientzia horien emaitzak kontuan izanik, oinarri berria eta egokia izan dugu esku artean esperientzia pilotuetan aplikatu dugun metodologia hori garatzen, berritzen, moldatzen eta egokitzen hasteko, beste testuinguru eta egoera batzuetan aplikatu ahal izateko.

2014ko udazkenean zehar Aldahitz proiektuan egiteko nagusia esperientzia horien guztien azterketa zehatza egitea, ondorioak lantzea eta argitalpen zabal bat atontzea izan da. Argitalpenak jaso ditu, alde batetik, Aldahitz 2013/14 esperientzia pilotuen deskribapen metodologiko xehea, eta horrekin batera, hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak ikertzeko 2008. urtetik hona Soziolinguistika Klusterrean egin ditugun saioen oinarri teorikoen azalpen integratu bat.

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Gainera, Aldahitz proiektuaren baitan garapen metodologikoa egin dugu 2014ko iraila eta abendua bitartean, beste testuinguru eta egoera batzuetan aplikatu ahal izateko. Zehazki, metodologia proposamen berri hori lan munduan kokatua dago (*Aldahitz 2013/14* bezala) baina lantegi edo gune aldetik 2013/14rako finkatu genituen baldintza batzuk egokituta. Bi berrikuntza nagusi proposatzen ditugu garapen metodologikoaren emaitza gisa:


- Batetik, lankide guzti-guztiak euskara ulertzeko gaitasuna ez duten sailetan aplikatzeko moduko metodologia-proposamen berria: "Uler-hizketa" metodologia deitu duguna. Metodologia honen helburua da dinamika berri bat eragitea euskaraz ez dakiten lankide (gutxi) batzuk dauden sailetan, haiek jardun naturalaren bitartez euskara ulertzea iristeko aukera emango duena. Modu horretan, dinamika horren amaieran, Aldahitz 2013/14-en abiapuntuzko baldintza gisa definitu genuen egoeran geundeko: guztiak ulertzea.
- Bestetik, 2013/14an probatu dugun "Eusle metodologia"n sakontzea proposatzen dugu, norabide jakin batean: atsedeen eta esperientzia aldien konbinazio berriekin probak egitea, "dosi" egokien bila. 2013/14 aldian bi hilabetezko esperientziak izan dira, jarraian, eta ondoren hiru hilabetezko atsedena. Proposamen berrian, esperientzia aldi laburragoekin proba egitea proposatzen dugu (hilabete, bi aste...), baina saio bakarra egin beharrean, gune berean bi-hiru-lau esperientzia aldi labur eginaz, tartean beren atsedenekin.

2014an garatutako metodologia-proposamen berri horretatik abiatuta 2015ean esperientzia pilotuak garatuko dira (besteak beste, Eusko Jaurlaritzan) eta esperientzia horien emaitzak aztertuko eta gizarteratuko dira.

Ezagutzaren transferentzia:

2013 eta 2014ko jarduna 2015ean argitaratuko den *Aldahitz ikerketa 2014. Eusle metodologia eta hizkuntza ohituren aldaketa lan munduan* lanaren oinarri izango da. Lanak hizkuntza ohituren aldaketaren fenomenoari buruzko azalpen teorikoak jasotzen ditu.

> Informazio gehigarria: <http://www.soziolinguistika.eus/aldahitz>



PROIEKTUAK

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Zuzendaria: Nekane Goikoetxea

Koordinatzailea: Pablo Suberbiola (p.suberbiola@soziolinguistika.eus)

1. Garapen Taldean: Maite Alvarez Izaro Ugalde

2. Garapen Taldean: Rober Gutierrez eta Imanol Miner

3. Garapen Taldean: Juan Inazio Marko

4 ERLAN 3

Babesleak:



Euskararen gaitasunak nabarmen gora egin badu ere, ez da gauza bera gertatzen erabilerarekin. Arrazoi ezberdinak egon litezke horren atzean, gaia poliedrikoa baita inondik ere. Eralan 3n horietako batzuk sakonago aztertzen saiatu gara Eralan 2ko eskarmentutik tiraka. Gure helburu nagusia da, hortaz, administrazioetako euskara planak berritzen saiatzea, euskara planak kudeaketa eredu batetik elkarrekintza eredu batera jauzi egin dezan. Helburu orokor hori operatibizatzeko 3 helburu zehatz hauek jorratu nahi izan ditugu:

- Portaera eredugarriak sustatzea administrazioan bere rolean boterea eta eragin-esparru handia dutenen artean.
- Administrazioaren udal agente guztien lidergo kateak artikulatzea: ardura-dun politikoak, euskara teknikariak, sindikatuak, langileak.
- Euskara teknikarien rola birdefinitzea.

Ikerteta, garapen eta berrikuntzari dagokionez honako hauek egin dira Garapen Talde bakoitzean.

1. Herri administrazioetako erabilera planak berritzen Garapen Taldea:

Lau helburu nagusi ditu lan-ildo honek, lehena nagusia eta ondorengo hirurak helburu horretara iritsi ahal izateko azpi-helburuak:

- Administrazioetako Euskara planak berritzeko hizkuntza-lidergoaren bitartez kudeaketatik elkarrekintzara jauzi egitea.
- Portaera eredugarriak sustatzea, administrazioan bere rolean boterea eta eragin-esparru handia dutenen artean.
- Administrazioaren udal agente guztien lidergo-kateak artikulatzea: ardura-dun politikoak, euskara teknikariak, sindikatuak eta langileak.
- Euskara teknikariaren rola birdefinitzea: aktibatzea, jabekuntza eta diskurtsoa.

2. Prentsaurrekoak eta jendaurreko ekitaldiak:

Bigarren lan-ildo honetan ere, lau helburu bete dira, lehena orokorragoa, eta ondorengo hirurak lehen horretara iristeko azpi-helburuak izan direnak:

- Jendaurreko aurkezpen eta prentsaurrekoen arloan hizkuntza-lidergoa aldagaiaren lanketa egitea, komunikazioaren arloko eta soziolinguistikaren arloko ezagutzak baliatuz eta elkarriketan jarritz.
- Diskurtsoak elikatze baliabideak lantzea, arlo ezberdinetako liderren (enpresa, kirola, kultura, politika...) zein komunikazio-arduradunen jabekuntza edo ahalmentzea handituz.

- Garapen Taldea osatzen duten erakundeetan praktika onak maizago edo gehiago aplikatzeari begira prozesua garatzea, besteak beste, hiruzpalau hirlabeteko interbentzioak eginaz tartean.
- Hizkuntza-lidergoaren ikuspuntutik jendaurreko aurkezpen eta prentsaurrekoetarako egokiak diren jarraibideak eta praktika onak biltzea, dokumentatzea eta proposatzea.

3. Hizkuntza-portaera aktiboak erakundeen kulturaren argitan:

Hirugarren Garapen Taldearen kasuan, bi urteko fase honetarako xedeak ondorengo sei puntutan laburbiltzen dira:

- Hizkuntza parametroetan erakundeen kulturaren diagnostikorako ereduak eta tresnak biltzea eta diseinatzea.
- Hizkuntza-portaeren neur-tresnak bildu, konparatu eta sortzea.
- Hizkuntzarekiko portaera aktiboak indartzeko balizko ekintza analitikoen eraginkortasuna balioztatzea.
- EPEsA metodoaren aplikatzea, Garapen Taldean analisi osoa eta Xede taldeetan analisi laburtua burutuz, modu horretan metodologiaren aplikazio ahalmenak eta erabilgarritasuna balioztatuz eta balidatuz.
- Esku-hartzea bideratutako erakunde bakoitzaren baitako hizkuntza portaera aktiboen indizeak hobetzea.
- Aztergai eta lan-lerro berriak identifikatzea.

Interbentzioak erakunde hauetan egin dira: Eibarko Udala, Zumaiako Udala, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea, Portugaleteko Udala, Lasarte-Oriako Udala, Bermeoko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Ezagutzaren transferentziari dagokionez 2012-2013ko zikloan sortutakoa bi bide erabiliz sozializatu da 2014an: argitalpen nagusi bat (euskaraz), 2015ean argitaratuko dena eta lan topaketa bat, Udaltop Soziolinguistika Jardunaldia 2014ko maiatzaren 15 eta 16an egin dena. Klusterraren webgunean jasota dago Jardunaldiak eman zuena.

> Informazio gehigarria: <http://www.soziolinguistika.eus/eralan>

PROIEKTUAK

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

5 GAZTEAK ETA AHOZKO HIZKUNTZA HEZKUNTZA
ARAUTUAN – TOLOSAKO LABORATEGIA

Zuzendaria: Josune Zabala Alberdi
(j.zabala@soziolinguistika.eus)

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Tolosa: ahozko laborategia (2010-2014) ikerketaren azken hondarrak izan dira 2014koak. Lau urte hauetan, Tolosako hiru ikastetxetan gauzatzen aritu gara ikerketa: DBHko 44 gelatan eta 1.100 ikaslek parte hartu dute gutxi gorabehera. Ikerketa honetan Ikastetxe bakoitzeko euskara irakasleekin batera aritu gara lanean. Iker-tzaileen ardura izan da ekintza-ikerketa diseinatzea, material didaktikoa sortzea eta irakasleei jarraipena egitea. Irakasleek, berriz, material didaktikoa gelaratzen, ha-ren gaineko ebaluazioak egiten eta ikasleen ekoizpenen grabaketak egiten lagundu dute, besteak beste.

SLK-ko ikertzaile eta Tolosako irakasleen arteko harreman ezberdinetan, honakoa bideratzea adostu da ikerketaren azken etapan:

1. Ikerketaren helburuak

- 1. helburua: sekuentzia didaktikoen esku hartzearen ezaugarriak zein diren jakitea, ahozko hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan lagungarri izan daitezkeen praktikak identifikatzeko.
- 2. helburua: ikasleen ahozko gaitasunetan eta irakaslearen praktiketan sakontzea:
 - a) ikasleen aurre-testu eta ondo-testuen analisisa egitea sekuentzia di-daktiko jakinetan.
 - b) irakasleekin izandako elkarriketatik ezagutza berria eraikitzea irakaskuntza praktiken inguruan.

2. Ikerketa proposamena

- 1. helburuaren prozedura: 2. esku hartzean, ikasgelako jarduna behatu eta grabatzea (ikasle eta irakasleak ikusi eta entzuten direla) elkarrekintza egoe-ren analisisa egiteko; horrez gain, aurre-testu eta ondo-testuen analisisa egitea.
- 2. helburuaren prozedura: 1. eta 2. esku hartzeetan, aurre-testu eta ondo-testuak grabatzea eta esku hartze bakoitzeko irakasleekin elkarriketak eraikitzea ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan gehiago sakontzeko.

Azken lau urteetako ibilbidetik jasotako ikaskuntzaz atera dira hamaika emaitza, eta horietatik honakoak labur-labur aipatu nahi ditugu:

PROIEKTUAK IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

Praktikak ahozko hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan

ARRAKASTATSUAK

- Testuinguru soziolinguistikoak ez du baldintzatzen ikasleen garapena (H1/H2 euskara duten ikasleen aurrerapena antzekoa edo berdina izan da): H2 euskara dutenen kasuan aurrerapenak handiagoak izan dira ondostuetan.
- Ahozko hizkuntza lantzeko tradizioa > horretarako ematen den denborak laguntzen du.
- Ikastetxeko curriculumean ahozko hizkuntzaren presentzia sistematizatuta egotea, baita irakasleen arteko koordinazioa ere.
- Irakasleak duen hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboa.
- Irakaslea da ikasleen eredu: hiztuna, berritsua, hizkuntza eredu ona.
- SDak ahozkoasuna lantzeko baliabide gisa:
 - Jarduera antolatua.
 - Helburu komunikatibo errealak.
 - Eredu egokiak.
 - Ariketa baliagarriak.
 - Ikus-entzunezkoen erabilera.
 - Elkarrekintzaren ugaritzea: hitz egiteko eta hitz egindakoaren gainean gogoetatzeko uneak eta kudeaketa motak.
 - I(r)a kaskuntza prozesu eraikitzaileak: proiektuko lanak, talde-lana, elkarriketa eta eztabaidak...
 - Espazioaren antolaketa askotarikoak.
 - I(r)a kasleentzat motibagarria, oro har.
- Proposatutako SDak norberaren gelako ezaugarrietara egokitu edo ugaritzea: lagungarri i(r)a kasleentzat, ulertzeko eta egiteko moduetan, azken emaitzan.
- Azken helburu komunikatiboa une oro presente izatea: ondo-testuari behin eta berriro erreferentzia egiteak bidean laguntzen du.
- Elkarrekintza sustatzea:
 - Hizketarako uneak sortzea.
 - Talde kooperatiboetan lan egitea.
- Elkarrekintza arauak izan eta betearaztea (ez dadin klaseko dinamika diziplina arazoak konpontzera bakarrik mugatu).
- Emozioen kudeaketan laguntzen/oztopatzen dute:
 - Lehenago egindako praktika kopuruak.
 - Adinak.
 - Ikasleen gaitasun komunikatiboak.
 - Ikasleen gaitasun kognitiboak (umorea egiteko gaitasuna, argudiatzeko edo besteen tokian jartzeko gaitasuna, eta abar).
 - Aldagai sozialak: ezagun/ezezagun izatea; gertuko/urrunko gertatzea; helduen/gazteen jarduna izatea eta abar.
 - Ikus-entzunezkoak.
 - Ebaluazioak.

HOBETZEKOAK

- “Ahozko lantegia” proiektuaren presentzia ikastetxe mailan eta ikasgela barnean. SDak lantzeko garaian eta irakasleen artean eta ikasgeletan partaide izatearen jabetza lantzea.
 - Proposatzen diren SDak ikasleen gaitasun kognitibo eta komunikatiboetara egokitzea, baita ezaugarri sozialak kontuan hartzea ere.
 - Ikus-entzunezko baliabideak erabiltzeko aukerak erraztea ikastetxe mailan.
 - Hizkuntzaren presentzia gainerako arloetan: hizkuntza eta beste arloetako irakasleen koordinazioa sendotu.
 - Gelako dinamiketan, diziplina arazoak lantzea.
 - Irakasleen joera, denboran aurrera joan ahala SDetatik urruntzea.
 - Ondorioa: hasieran jarritako helburuetatik urrutiratzea, beraz, ez lantzea.
- Materiala sortzeko garaian, joera hau kontuan hartzea.
- Ahozko jardunaren garrantziaz ikasleak jabetzea (testuinguru formaletan eta informaletan).
 - Ahozko jarduerak ebaluatzea. Ebaluazioa sistematizatzea.
 - Jendaurrekotasuna (adinez gora > urduriago).
 - Herri txiki euskaldunetako ikasleen ekoizpena (alderdi sozial eta linguistikoak).
 - Testuinguru informalek eta ahozko hizkuntzaren i(r)a kaskuntza prozesuak aztertzea:
 - Umorea zaila H1 eta H2 euskara duten guztientzat.
 - T. informaleko euskal erreferenteak falta.
 - Naturaltasuna galdu eskolan (t. formala).
 - Irakasleak ohitu gabe.
 - Aurreiritzi batzuk i(r)a kaskuntza prozesuaz:
 - Landu ez diren edukiak ebaluatzeko joera.
 - Behin (bakarrik) landutako edukiak betiko barneratu direla pentsatu eta juzkua egitea.
 - Testu idatziak garrantzizkoago izatea; gramatikaren garrantzia gehiegizkoa; baliabide ez berbalak ez kontuan hartzea; ahozko testuak memorizaratzeko joera; komunikatzeari baino garrantzia handiagoa ematea edukiari berari.
 - Gela barneko hizkuntza erabilera: kode-alaketak eta esku hartzea.

PROIEKTUAK

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

6

GAZTEAK ETA AHOZKO HIZKUNTZA HEZKUNTZA
ARAUTUAN – BERBEKIN PROGRAMA

Zuzendaria: Ines Garcia Azkoaga
(EHU- HIJE taldeko kidea)
Koordinatzailea: Josune Zabala Alberdi
(j.zabala@soziolinguistika.eus)

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala

EHUrekin (HIJE taldea, Gasteiz) lankidetzat hitzarmena gauzatu da, eta ondorioz, egitasmoan partaidetza eta zuzendaritza izan du HIJE ikerketa-taldeko Ines Garcia Azkoaga doktoreak. Aurrerantzean ere, ikerketa honetako zuzendaritza berak eramango du.

Ikastetxe guztietan aurkeztu da ikerketa-ekintza, eta lortu nahi izan da Bergarako ikastetxe guztien partaidetza landa-lanean. Lehen fasean, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolak bat egin dute ikerketarekin. Bigarren fasean, berriz, Ipintza institutua txertatu zaio egitasmoari. San Martin eskola, printzipioz, landa-lanetik kanpo gelditu da 2014an.

Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastoletan landa-lana egin da:

- Ikastetxeetan, partaide izan diren geletako ikasleek galdetegiak bete dituzte geletako datu soziolinguistikoak ateratzeko.
- Ikastetxeetan irakasleengandik betetako galdetegietatik jaso da hizkuntza-ren gaineko zein ikuspegi duten landa-lanean parte hartu duten irakasleek.
- Bideo grabaketak egin dira LHn eta DBHn.
- Egindako grabaketak transkribatu dira.

Landa-lanaren harira, honako dokumentuak eraiki dira:

- Artikulu zientifiko bat ikerketa honen oinarri teoriko eta metodologikoak zehazten dituen. 2015ean argitaratuko da artikulu hau.
- Datu soziolinguistikoaren txostena: landa-lanean ateratako datu orokorrak biltzen ditu.
- Bideo grabaketen transkripzioak: 8 grabaketen corpusa.

Aurrera begira, honakoetan sakontzea dagokigu:

- Ipintza ikastetxearekin landa-lana bideratzea: gelako datu soziolinguistikoak, irakaslearen ikuspegia hizkuntzaaren didaktikaz, grabazioak eta transkripzioak.
- Ikastetxeetako formazioak: urtariletik martxora bitarte emango dira formazioak.

2015eko ikerketa-ekintza, berriz, oinarrituko da konfrontazio jardueran, zeinetan bi esku-hartze bideratuko diren:

1. Esku hartzea : Autokonfrontazioa (irakasle bakoitzarekin lan egingo da)
 - Elkarrizketa irakaslearekin.
 - Jardueraren eta elkarrizketen analisi diskurtsiboa (ikertzaileak).
 - Jardueraren berrazterketa irakasle eta ikertzailearen artean.
 - Hobekuntza proposamenak.

2. Esku hartzea: Konfrontazio-gurutzatua (ikastetxeko irakasle partaide guztiak elkarrekin)

- Jarduera jakinen hautaketa (ikertzaileak).
- Jarduera jakinen berrazterketa taldean ikertzailearekin.
- Hobekuntza proposamenak taldean ikertzailearekin.
- Ezagutza berriaren eraikuntza eta aurkezpenaren prestaketa.

7 EAS (EUSKARAREN ADIERAZLE SISTEMA)

Zuzendaria: Iñaki Martínez de Luna
 Koordinatzailea: Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.eus

Babesleak:



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SALA
 DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
 POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako
 Foru Aldundia

Nafarroako
 Gobernua



Gobierno
 de Navarra



Bizkaia Foru Aldundia
 Diputación Foral de Bizkaia



Arabako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Álava



Office public de
 la langue basque

Euskararen Adierazle Sistemaren (EAS) helburu nagusia euskararen egoera eta bilakaera jasotzea eta ezagutzera ematea da. Izan ere, gizartearen esparru desberdinetan hizkuntzak une jakin batean zein zabalkunde eta zein bilakaera duen zehatz-mehatz azaltzeko balio behar du sistema horrek.

Helburua hori izanik, 2014ean EASen oinarritzko definizioa eta ezaugarriak zehaztu dira eta horren baitako zuhaitz tematikoa finkatu da. Hamar jardunguneren eta bost ardatzen egitura du EASek. Hona hemen jardunguneak: familia, hezkuntza, helduen euskalduntzea, administrazioa eta oinarritzko zerbitzuak, alor sozioekonomikoa, kultura, jendarteko komunikazioa, harreman informalak eta aisialdia, sozio-demografia, eta euskara munduan.

Jardungune bakoitzean adierazleak aukeratu dira bost ardatzen arabera: *gaitasuna, erabilera aukera, erabilera, iritzia eta jarrerak, eta bestelakoak.*

Halaber, EASek POCTEFA 2014-2020 deialdian izan dezakeen kokapenari buruzko aholkularitza eman da, hain zuzen ere “*promover la protección, la valorización, el uso sostenible de los recursos locales*” ardatzaren baitako egitasmoa dela aholkatu da.

PROIEKTUAK**IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA****8****HIZKUNTZEN AHOZKO KALE ERABILERA:
HERRIETAKO NEURKETAK**

Zuzendaria: Olatz Altuna
(o.altuna@soziolinguistika.eus)

Gero eta garrantzitsuagoa da euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko orduan horretarako aukera ematen diguten datuak izatea. Datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean erabiltzen den euskararen neurria.

Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz eta geroztik beste bost aldiz errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an eta 2011n. Orotara 250.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan. EKB 1998an desagertu ondoren, SEIk (Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen elkarteak) hartu zuen bere gain EHko Kale Neurketa egitearen ardura. SEI elkartearen lekua Soziolinguistika Klusterrak bete zuen 2004. urtean. Aurreko neurketen metodologia eta esperientzia oinarri hartuta Soziolinguistika Klusterrak 2011n Euskal Herriko Kale Erabileraren VI. Neurketa egin zuen. Orain bost urteko maiztasuna duenez, neurketa 2016an errepikatuko da.

Oinarri metodologiko hori baliatuz, Soziolinguistika Klusterrak herri mailako neurketa bereziak eskaintzen ditu zerbitzu modura. Neurketak, besteak beste, adin talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek asko errazten digu ondoren lehentasunak non dauden identifikatzeko. Gainera, Kale Erabileraren neurketak maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza aldaketak gertutik jarraitu ahal izango ditugu.

2014ean honako herri hauetako kaleetan neurtu dugu ahozko erabilera: Aduna, Azkoitia, Elgoibar, Getaria, Idiazabal, Lezo, Mutriku, Lekeitio, Muskiz.

> Informazio gehigarria: http://www.soziolinguistika.eus/herrietako_neurketak

9 DIKOMA: DISKURTSOA LANDUZ KOMUNITATEA AHALMENTZEKO PROIEKTUA

Zuzendaria: Iñaki Marko
 (inazio.marko@ehu.eus)
 Koordinatzailea: Belen Uranga
 (b.uranga@soziolinguistika.eus)

Laguntzaileak eta parte hartzaileak:



DIKOMA proiektua EUSKO IKASKUNTZAK eta Soziolinguistika Klusterrak sustatu eta hizkuntza-ekologiaren Diskurtsoa sozializatzeko eta hizkuntza-Komunitatearen sistema Ahalmentzeko xedearekin 2012 eta 2014 bitartean garatu den proiektua da. Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Oñati, Errenteria, Zumaia eta Bermeoko udalerrien babesa eta parte-hartze zuzena izan du. Zuzendaritzan Soziolinguistika Klusterraz gain, parte hartu dute beste zenbait erakundek ere: Euskal Herriko Unibertsitateak, Elhuyarrek eta Eusko Ikaskuntzak.



DiKoma udalerri mailan hizkuntz ekologiaren diskurtsoa sozializatzeko eta hizkuntz komunitatearen sistema ahalmentzeko esku-hartze proiektu gisa uler daiteke. Proiektua ezaugarritzen duen xede nagusia 'diskurtsoa', 'komunitatea' eta 'ahalmentzea' hitz-gakoen inguruan gorpuzten da, honako formulazio honekin: *Udalerri mailan herritarrekin esku-hartzea bideratzea, hizkuntza-ekologiaren ezagutza hedatuz diskurtso berri(ndar)tu bat sozializatzeko eta horren bidez herritarrek hizkuntz komunitate gisa osatzen duten sistema trinkotzen edota ahalmentzen laguntzeko.* Hori horrela, proiektuaren xede nagusiaren garapen gisa honako helburu hauek aurreikusi ziren DiKoma Proiektuaren abiapuntuan:

- Esperimentaziorako gunek izango ziren herrietako hiztun komunitatearen pertzepzio eta diskurtso-ahalmenari buruzko lehen diagnostikoa egin
- Hizkuntzen ekologiari buruzko corpus teoriko-kontzeptual egokitua osatu.
- Esku-hartzea ahalbidetzeko diseinu metodologikoa prestatu eta egikaritu.

PROIEKTUAK**IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA**

- Esku-hartzearen ondorioak aztertzeko eta parte-hartzaileen pertzepzio eta diskurtso baliabideetan izandako eragina ebaluatu.

DiKomA proiektua fasekako garapen metodologikoan oinarritu da, fase bakoitzaren garapena 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan kokatzen direlarik: *DiKomA Oinarriak* (2012), *DiKomA Interbentzioa* (2013), *DiKomA analisia eta proiektzioa* (2014).

Hirugarren eta azken fase hori da aurtur burututakoa, non, sortze eta metatze prozesuaren balorazioa, emaitzen azterketa eta ondorioak zein proposamen berriak zehazteko fasea den. Batetik, aurreko faseetan jasotako datuen eta interakzioan sortutako interpretazioen analisia gauzatu da hasitako ikerketari itxiera emanez. Bestetik, esperimentatu den *EkoLinguA* tresna metodologikoaren hobekuntzak landu eta aplikazio aukerak aztertu, eskaini eta eskuragarri jarri dira.


EkoLinguA solas-jokoa ezagutarazteko, aplikazio aukerak gehiago aztertzeko, hobekuntza proposamenak jasotzeko eta prototipoaren proiektzio sekuentzia aukera sektoreka identifikatzeko, hiru interbentzio sektorial burutu dira. Interbentzioak hiru eremutan gauzatu dira *EkoLinguA solas-joko* saio bana bideratuz: Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaritzako teknikariek, UEMAko teknikariek eta Ikastolen Elkartearen teknikariek. Bestalde, *EkoLinguA* prototipoaren proiektzioa ahalmentze programa batean txertatzeko aukerak irudikatu dira landa eremua izan diren udalerriekin ariketa parte-hartzaile baten bitartez.

Prozesuan zehar burututako esperimentazio desberdinen ondorioz identifikatu diren hobekuntzak aplikatu ondoren, horren erabilerrarako gidak eta prototipoak perfilatu dira ezagutarazi eta eskuragarri jartzeko asmorekin. *EkoLinguAren* zabalkundea eta erabilpen unibertsala bermatzeko sareko euskarrietan kokatzea nahi dugu. Hala, Europa mailako PlayDecide (<http://www.playdecide.eu/>) plataforman eskegitzeko aukeraz gain, beste plataformetan kokatzeko aukerak aztertuko dira unibertsaltasunaren kontzeptua indartuz eta metatze filosofiari jarraipena eman nahian erabilpenaren poderioz sortuko diren hobekuntzak eta aukerak etengabe aztertuz.

Informazio gehiago:

> DiKomA: <http://www.soziolinguistika.eus/DiKomA>

> EkolinguA: <http://www.soziolinguistika.eus/ekolinguA>



10 JENDAURREAN ERABILI

Zuzendaria: Eduardo Apodaka
 Koordinatzailea: Pablo Suberbiola
 (p.suberbiola@soziolinguistika.eus)

Babesleak:



Euskarak gaurko EAEko gizartean ez duen leku bat izango badu biharko egunean, horrek eskatzen du, besteak beste, gizarte hau osatzen duten era guztietako erakunde publiko eta pribatuak beren eguneroko jendaurreko jardunean, euren ohiko jarduera publikoan euskara gaur baino gehiago erabiltzea. Baina gai honetan ere, aldaketak ez dira automatikoak, hainbat erakundetan langile eta kide euskaldunak gero eta gehiago izan arren, eta biztanleen artean euskaraz ulertzen dutenak gehitzen joan arren.

2014an definitu eta etorkizunean garatuko den proiektu honek erakunde publiko eta pribatuak euren jendaurreko ohiko ekitaldietan, euren jarduera publikoan euskara gehiago erabili dezaten behar diren baldintzak aztertzea eta esperientzia arrakastatsuen ezaugarriak aletzea du helburutzat, teoria eta praktika uztartuz. Eta noski, ezagutza teoriko-praktiko hori euskara teknikari-sareen eskura jartzea.

Aipatu bezala, 2014an proiektu hau lantzeko proposamen teoriko eta metodologikoa landu da. 2014an aztertu da, proiektu hau zein alderdi teorikotatik enfokatu nahi den; aztertu da zein metodologia eta teknika erabiliz garatu daitekeen; zein motatako prozesu garatu daitezkeen; zein erakunderekin garatu daitekeen; etab. Lanketa horretan Eralan 3 zikloan "Pentsaurreak eta jendaurreko ekitaldiak Garapen Taldea"n eginiko lana aintzat hartu da, beste hainbat oinarriren artean.

Soziolinguistika Klusterrean garatzen ditugun hainbat proiekturen osagarritasun eta lankidetzak planteamendua egon da proiektu honen antolaketaren atzean ere: alde batetik, ezagutza teoriko eta akademiko aurreratua bilatu da (unibertsitate esparrutik) eta bestetik, ezagutza hori lankidetzak zuzenean jarriko da aplikazioaren eremuan ari diren teknikari eta profesionalekin, plan eta egoera konkretuen testuinguruan.

Jendaurrean erabili proiektuaren zuzendaritza, UPV-EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saileko irakasle-ikerlari eta INNOLAB Gizarte Aldaketa, Berrikuntza eta Konplexutasuna ikerketa-taldeko Eduardo Apodakaren eta Soziologia doktoregai Jordi Moralesen esku geratu da.

Dokumentu batean jaso dugu landutako Jendaurrean Erabili proiektuaren diseinua.

PROIEKTUAK

IKERKETA, GARAPENA eta BERRIKUNTZA

11 DATU SOZIOLINGUISTIKOEN BILDUMA

Zuzendaria: Olatz Altuna
(o.altuna@soziolinguistika.eus)

Proiektu honen bidez Araba eta Gipuzkoako datu soziolinguistiko nagusien bilduma egin da. Lau iturri estatistikoaren datuak hartu dira oinarri horretarako:

Babesleak:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Gipuzkoako
Foru Aldundia

- EUSTAT, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006, 2011: *Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak*.
- EKB, SEI Elkartea, Soziolinguistika Klusterra, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011: *Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006, 2011: *Irakaskuntza Estatistikak*.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2011: *Inketa Soziolinguistikoa*.

Hogeita bost urteko datu segida jaso da, 1986tik 2011ra bitarte, eta sei datu-multzotan banatuko dira: biztanleria, hiztunak, hezkuntza (eredu linguistikoak), gaitasuna, lehen hizkuntza, eta etxeko hizkuntza. Datu horiek guztiak adinaren eta sexuaren arabera eskaini dira, grafiko eta taula bidez.

Hona hemen datu bildumaren egitura:

1. Gaitasuna:

- Euskara-gaitasun xehatua
- Euskara-gaitasuna adin-taldeka
- Euskara-gaitasun xehatua adin-taldeka
- Euskara-gaitasuna generoaren arabera
- Euskara-gaitasun xehatua generoaren arabera
- Euskara-gaitasuna adin-talde eta generoaren arabera
- Euskara-gaitasuna jatorriaren arabera
- Euskara-gaitasun xehatua jatorriaren arabera

2. Lehen hizkuntza

- Lehen hizkuntza adin-taldeka
- Lehen hizkuntza generoaren arabera
- Lehen hizkuntza adin-talde eta generoaren arabera
- Lehen hizkuntza jatorriaren arabera

3. Etxeko hizkuntza

- Etxeko hizkuntza adin-taldeka
- Etxeko hizkuntza generoaren arabera
- Etxeko hizkuntza adin-talde eta generoaren arabera
- Etxeko hizkuntza jatorriaren arabera

4. Kale erabilera

- Kale erabilera adin-taldeka
- Kale erabilera generoaren arabera
- Kale erabilera genero eta adin-taldean arabera
- Kale erabilera haurren presentziaren arabera

5. Elebitasun mota inkesta soziolinguistikoaren arabera

- Euskaldunak zein hizkuntzatan hitz egiten du errazago
- Lehen hizkuntza inkesta Soziolinguistikoaren arabera
- Elebitasuna lehen hizkuntzaren arabera
- Hizkuntza bilakaeraren tipologia
- Erabileraren tipologia: Etxea/Laguna/Formala eremuen tipologia

6. Jarrera

- Jarreraren araberrako tipologia
- Euskara sustatzeari buruzko jarrera

PROIEKTUAK EZAGUTZAREN KUDEAKETA

Soziolinguistika Klusterraren egitekoen artean soziolinguistikari buruzko ezagutza zabaltzea dago. Horregatik, soziolinguistika arloko ezagutza gaur egun kudeatzen duten erakundeekin, ikertzaileekin eta adituekin **elkarlanean** egingo dugu ezagutza-fluxu eta sare horiek ezagutzeko eta lantzeko.

Helburu horrekin honako bitarteko hauek erabiltzen ditu Soziolinguistika Klusterrak, besteak beste: **jardunaldiak, mintegiak, topaketak eta praktika komunitateak, argitalpenak, formazio saioak eta Interneteko tresnak** (webgunea, sare sozialak eta soziolinguistika telebista).

1 BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA

Koordinatzailea: Belen Uranga
(b.uranga@soziolinguistika.eus)

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Euskararen berreskurapen- eta normalizazio-lanetan diharduten eragileak soziolinguistikan eta glotopolitikan janztea da BAT Soziolinguistika aldizkariaren helburu nagusia. Horretarako, Euskal Herriko soziolinguistika-arloko ekarpen esanguratsuak biltzen ditu, eta atzerriko hainbat lanen berri ematen.

BAT aldizkariako argitalpen batzordeko kideak Iñaki Martínez de Luna, Estibaliz Amorrortu, Inma Muñoa, Jone Miren Hernández, Lionel Joly, Maria-Jose Azurmendi eta Pablo Sotés dira. Horien artean, BAT aldizkariaren zuzendaria Iñaki Martínez de Luna da.


BAT aldizkariak 2014. urtean honako zenbakiak argitaratu ditu:

• BAT 90 zenbakia: Lurralde antolaketa eta euskara

- Belen Uranga: *Hitzaurre gisa*
- Unai Fernandez de Betoño: *Hirigintza eta euskara: marko orokorra*
- Koldo Telleria: *Lurralde bat; hainbat hizkuntza, hainbat modu*
- Eñaut Apaolaza: *Euskara toki garapena, gonbidatu gabeko protagonista*
- Iker Salaberria: *Arnas-estitik urbietara*
- Paul Bilbao: *Lurraldearen antolamendua hizkuntza irizpidea kontuan hartzeko ibilbidean nazioarteko esperientziak*

GUREAN atalean

- Beñat Urkiza: *Lurralde eta ikastetxe desberdinetako euskararen erabileraren datuen hausnarketa eta konparaketa*
- Ariane Ensunza: *Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait*





• **BAT 91 zenbakia: Euskara erabiltzeko plana biziberritzen**

- Belen Uranga: *Hitzaurre gisa*
- Iñaki Martinez de Luna: *Orain arteko plangintzen balorazio soziolinguistikoa*
- Patxi Baztarrika: *Amets txikien iraultza (abiapuntuan, Eusko Jaurlaritzaren V. Plangintzaldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana)*
- Imanol Haro: *Erabilera planak UEMAn: mugak hausten*
- Mikel Irizar: *Erronka eta aukera berriak administrazioetako euskara teknika-rientzat*

GUREAN atalean

- Josu Ozaita: *Hurbilpen bat tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara*
- Josep Ubalde: *Jarrera linguistikoak hartzea: Kataluniako eta La Franjako nerabeek Kataluniarekiko dituzten harreren zeharkako azterketa*

• **BAT 92-93 zenbakia: VII. Hausnartu. Euskal soziolinguistika sariak**

- Belen Uranga: *Hitzaurre gisa*
- Miren Artetxe: *Bertsolaritzaren eragina Lapurdiko bertso-eskoletako gazteen identitatean eta hizkuntza erabileran*
- Naiara Berastegi: *Hizkuntza eta kultura aniztasuna Bilboko eskoletan. Euskararen erabileran eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak.*
- Josu Amezaga: *Hizkuntza gutxiak komunikazio espazio nazionalen aldaketan aurrean*
- Goizargi Oruesagasti, Joana Arakistain eta Aipea Otaegi: *Nola txertatu geneo-ikuspegia hizkuntza-politikan? Lanerako marko baten proposamena*
- Maite Quintanilla: *Gazteak, hizkuntza eta hegemonia. Lekuan lekuko ikerketa antropologikoa Soraluzen*
- Ainhoa Lasa, Larraitx Madinabeitia eta Gemma Sanginés: *Portaera asertiboa-ren hautematea*
- Naroa Odriozola: *Azpeitiko batxilergoko gazteen herriko hizkuntzarekiko lotura afektiboa eta hizkuntza horien erabilera: azpeitiera, euskara batua, gaztelania*
- Maialen Arnedo: *Atxutxiamaika aisialdi taldeak haur, guraso eta hezitzaileen euskararen erabileran duen eragina aztertuz*
- Beñat Urkiza: *Aldagai soziolinguistikoen bidez aztertuta: Mutrikuko azentuaren barietatea*
- Xabier Azkue: *EUSKURA, euskara eta kultura*
- Iñigo Igartzabal: *Kode-alternantzia eta hizkuntza-ohiturak Gabiriako bi belau-nalditan*



Soziolinguistika Klusterrak BAT aldizkarian argitaratu diren artikulu guztiak bere webgunean (<http://www.soziolinguistika.eus/bat>) irakurlearen eskura jartzen jarraitu du. Aldizkariaren edukiak artikuluka jaisteko aukera eskaintzen zaio irakurleari. Azken lau zenbakiak dira bertan agertzen ez diren bakarrak; horiek paperezko bertsioan eskura litezke. Azken lau zenbakien izenburuak eta laburpenak webgunean ikusgai jartzea izan da aurtengo beste berrikuntza bat.

> Informazio gehiago: <http://www.soziolinguistika.eus/bat>

PROIEKTUAK EZAGUTZAREN KUDEAKETA

2 HAUSNARTU. EUSKAL SOZIOLOGIA SARIAK

Koordinatzailea: Belen Uranga
(b.uranga@soziologia.eus)

Babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Hausnartu Euskal Soziologia Sariak egitasmoaren helburua euskal soziologia teoriko edota metodologikoaren garapena eta berrikuntza da.

Aipatu helburuarekin, lehiaketarako kontuan hartu dira euskararen gaineko berrazko garapen teorikoak nahiz kanpoan landutako garapenetatik abiatuta gure hizkuntzaren egoera aztertzeko eta ulertzeko egokitzapenak.

Horrenbestez, diziplina zientifiko ezberdinetako irakasle, ikertzaile eta adituei eskatu zaie, euren ezagutzen eta landu dituzten hurbilpen teorikotatik soziologikarainoko jauzia egiteko ahalegina; alegia, nahi edo hobesten duten hurbilpen eta ikuspuntutik abiatuta zer esan daitekeen hizkuntzen - euskararen/erdaren- kasura aplikatuta.

Proiektu honetako kalitatearen berme nagusiak bi izan dira. Batetik, proiektuaren bultzatzailea den Soziologia Klusterraren ibilbidea. Bestetik proiektu honen kalitate eta garapenaren kontrolaren ardura izango duen batzordea. Batzorde honetan, arloaren ezagutza zabala eta frogatua duten Bat Soziologia Aldizkariko argitalpen batzordeak esanahi berezia izan du; alboan izan ditu herri administrazio-ko aditu ezagunak ere.

2014 -VII HAUSNARTU Euskal Soziologia Sarien emaitza:

<http://www.sociologia.eus/hausnartu2014>



Sari-banaketa ekitaldia 2015ko urtarrilaren 29an egingo da, Donostiako San Telmo Museoa.

Informazio gehiago:

www.sociologia.eus/hausnartu

Epai-mahaiaren arabera honakoak izan dira 2015eko sariak jaso dituzten lanak eta egileak

- Lehen saria

Bertsolaritzaren eragina Lapurdiko bertso-eskoletako gazteen identitatean eta hizkuntza erabileran

Egilea: Miren Artetxe

- Bigarren saria

Hizkuntza eta kultura aniztasuna Bilboko eskoletan. Euskararen erabileran eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak

Egilea: Naiara Berastegi

- Hirugarren saria

Hizkuntza gutxiak komunikazio espazio nazionalen aldaketan aurrean

Egilea: Josu Amezaga

3 EUSKARAREN NORMALIZAZIO KASU AURRERATUAK

Asko dira euskara-planak martxan jartzen dituzten enpresak. Euskarak lan-munduan dituen ageriko mugak hedatzeko eta oztopoak gainditzeko kontzientziatzeko lan go-gorra egin behar da. Horietako batzuekin lan egin da proiektu honetan. Hain zuzen ere lan-munduan euskaraz normaltasunez aritu ahal izateko egindako lanari ikuspegi eraikitzailea eta erabilgarria eman dioten enpresekin, ikasteko eta hazteko jarrerarekin, euskara normalizatzeko planei, gainkargaren ordezkari aukera berriak ikusten dizkietenekin. Oro har, erakunde txikiak dira, eta langileen arteko eguneroko harremanek garrantzia handia dute enpresak egoki funtziona dezan. Euskara bazterrean uztera zeramatzatzen motiboak aztertu eta egoera irauli zuten, lan-eremu euskalduna lortuta. Enpresa horien artean daude Koniker, Edertek, Autocares La Guipuzcoana eta Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargoa.

Euskararen Normalizazio Kasu Aurreratuak proiektuak aurreikusia zuen planteamenduan aldaketa bat egin da 2014an: lau enpresen kasuak modu bateratuan aztertu dira.

2015eko urtarrilean aurkeztuko da publikoki. Mahai-ingurua ere grabatu da enpresetako ordezkariekin. Bideoa editatzen ari da momentu honetan eta urtarrilean aurkeztuko da publikoki.

Bideoaren bertsio gordina hemen ikus daiteke:

<https://www.youtube.com/watch?v=yAATzypwao0&feature=youtu.be>



PROIEKTUAK EZAGUTZAREN KUDEAKETA

4 Udaltop Soziolinguistika jardunaldia

Udaltop soziolinguistika kasu aurreratuak eta Soziolinguistika Jardunaldia batera ospatu dira 2014an. Bi ekitaldiak bateratu eta "Administrazioko erabilera planak: elkarrekin berritzen" izena duen jardunaldia burutu da maiatzak 15 eta 16 artean.

Jardunaldia hiru atal orokorretan banatu da.

- Lehen zatian ("Euskara planak garatzeko oinarriak") helburu nagusia izan da administrazioko euskara planak hobetzeko Eralan 3n egindako bidetik eta egindako lanketatik eskaini daitekeenaren azalpen teoriko eta landuak ematea. Bai planak diseinatu eta kudeatzearen aldetik, bai plan horiek garatzeko moduaren aldetik, baita teknikariak plan horien garapenean betetzen duten rola eta eskura duten tresneriaren aldetik ere.

Planak "hobetzea" aipatzen dugunean, planak eraginkorrak, partekatua goak edo/eta bibentzialak izateaz ari gara, besteak beste. Ekarpene edo hitzaldi hauetan, oinarria Eralan-en (Eralan 2n eta Eralan 3n) landu diren edukia (besteak beste, lidergoa) eta garaturiko esperientziak izan dira, eta haien gaineko hausnarketa zein azalpen teorikoa bilatu da.

Atal honen baitan hiru hitzaldi egin dira.

- *Orain arteko plangintzen balorazio soziolinguistikoa.* Iñaki Martinez de Luna (EHU)
- *Euskara teknikariaren rolaz: ezagutzari ekarpena praktikatik.* Nekane Goykoetxea (HUEZI)
- *Lidergoa eta lidergo eraldatzailea.* Juanjo Arrospide (EHU)
- Bigarren zatia ("Eralan3ko interbentzioak eta emaitzak") izaera praktikoagoa izan dute eta bertan parte hartu dute da 2012-13 zikloan Eralan 3n aritu ziren zenbait teknikari. Horiek Eralan3ren baitan egindakotik eguneroko lanean topatu dituzten tresnak, esperientziak edota metodologia baliagarrienak azaldu dituzte.

Bigarren zati honek, beraz, helburu praktikoagoa izan du, eta helarazteko modua ere hurbilagoa izan da: adibideak, tresnen xehetasunak, prozesuan izandako bizipenak eta tokian tokiko esperientziak azaldu baitituzte. Hiru izan dira, orotara, ildo honen baitan gauzatu diren hitzaldiak:

- *Arduradun politikoak linguitikoki ahalmentzeko edabe magikoaren bila: Eibarko eta Lasarte-Oriako Udaleko errezetak.* Junkal Txurruka eta Iñaki Arruti (Eibarko Udala, Lasarte-Oriako Udala)
- *Zumaiko euskara teknikariaren arteko lidergoaren antolaketa.* Josune Herrarte eta Xabier Azkue (Zumaiko Udala)

PROIEKTUAK EZAGUTZAREN KUDEAKETA

- *Eralan itsasontzirako portu bi: Bermeo eta Portugalete.* Lurdes Etxezarreta eta Aitziber Gabikaetxebarria (Portugaleteko Udala eta Bermeoko Udala)
- *Erakundeek jendaurrean euskaraz: erresistentziak gainditu, erre gabe.* Eneko Bidegain (Mondragon Unibertsitatea- HUEZI) eta Joxean Amundarain (GFA)
- Hirugarren zatian, azkenik, ("Esperimentazioa eta berrikuntza aurrera begira") helburu nagusia aurrera begira jartzea da, bereziki V. Plangintzaldiari begira (2013-2017), lankidetzan planteamendu batekin. Horretarako hiru hanka dituen erakunde-arteko lantaldeak egindako planteamendu, proposamen eta iradokizunak aurkezten dituen saioa proposatu da. Hauek osatzen dute lan talde hori:
 - SL Klusterreko eta Eralan 3ko Administrazioa GTko kideak.
 - Udaltop-eko antolatzaileak (GFA eta Lasarte-Oriako Udala).
 - Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako kideak.

Erakunde-arteko lantalde horrek bi-hiru hilabeteko lanketa(txo)aren emaitza eskaini du Jardunaldian: Eralan-eko esperientziatik abiatuta, V. plangintzaldian txertatzeko modukoak diren elementuak, hobekuntzak eta proposamenak aipatuz.

- *Mugak hausten.* Imanol Haro (UEMA)
- *Eusko Jaurlaritzaren Erabilera Planaren V. Plangintzaldia: berrikuntzak.* (Euskal Jaurlaritza: HPS)
- *Eralanen ekarria erabilera planei esperimentazio eta berrikuntzaren bide-tik.* Maite Alvarez de Zarate eta Izaro Ugalde (SLK)
- *Aurrerapausoak administrazioetako euskararen erabilera planetan: erronka eta aukera berria.* Mikel Irizar.

> Informazio gehiago: http://www.soziolinguistika.eus/slk_udaltop2014

5 FORMAZIO SAIOAK

Soziolinguistikaren inguruko hainbat formazio saio eman dira 2014an:

- Ahozko hizkuntza hezkuntza arautuan sustatu eta praktikan jartzeko formazioak eman dira IRALE bitartez. Guztira sei ikastaro EAEn.
 - H 401 Zubietako ikastetxean (Getxo)
 - H 401 Eguzkitza ikastetxean (Irun)
 - I ikastaroa Elatzeta ikastetxean (Irun)
 - I ikastaroa San José Hijas de la Cruz ikastetxean (Irun)
 - I ikastaroa Toki Alai ikastetxean (Irun)
 - I ikastaroa Elizatxo ikastetxean (Hernani)
- Ahozko hizkuntza hezkuntza arautuan sustatu eta praktikan jartzeko formazioak eman dira, bestalde, BERRITZEGUNEETAKO aholkularientzat:
 - Txurdinagako Berritzegunean
- HUHEZIREkin lankidetzan eman dira bi ikastaro:
 - Lehena ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia eta literaturaren irakaskuntza-ikaskuntzaz
 - Bigarrena ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatziaren irakaskuntza-ikaskuntza eta bere zailtasunez
- EHU, udako ikastaro bat egin da:
 - "Ahozko hizkuntza testuinguru akademikoan"
 - <http://www.ueu.eus/ikasi/irakasleen-formakuntza-ikastaroa/630/Ahozko+hizkuntza+testuinguru+akademikoan>
- Udaberri euskaltegian formazioa eman da:
 - Euskaltegiko ahozotasunaren oinarri eta baliabideak
- Hizkuntza-ekologiari buruzko formazio saio bi egin ziren, bata GFaren laguntzaz eta bestea Zumaiako Udaletxearen parte hartzearekin.
- **Euskararen transmisioaren bide berriak** ikastaroa EHU/UPVren XXXIII. Donostiako Uda Ikastaroak – XXVI. Europar Ikastaroetan:
 - http://www.soziolinguistika.eus/transmisio_bide_berriak
- **Euskara erabiltzeko planak: elkarrekin berritzen** Udaltop Euskal Soziolinguistika jardunaldia: http://www.soziolinguistika.eus/sl_k_udaltop2014
- **Ponentzia** "El camino hacia el plurilingüismo" kongresuan. *Nebrija Unibertsitatean aurkeztu da "Tolosako laborategia" ikerketa, II Nazioarteko jardunaldian.*
 - <http://www.soziolinguistika.eus/node/5945>

6 INTERNET: WEBGUNEA ETA SARE SOZIALAK

Koordinatzailea: Belen Uranga
(b.uranga@soziolinguistika.eus)

Klusterraren misioan bertan ageri da soziolinguistika-ezagutza zabaltzeko egin-beharra, eta gaur gaurkoz gure webgunea da soziolinguistikaren inguruko informazioa hedatzeko daukagun tresnarik eraginkorrenetakoa, atsegina eta erabiltzeko errazagoa izan dadin.

Soziolinguistika Klusterrak bere webgunea garatu du helburu hauekin:

Babesleak:



- Helburua: **Soziolinguistika Klusterraren komunikazio korporatiboa** www.soziolinguistika.eus webgunearen aurkezpena, lan arloak, albisteak, soziolinguistikaz eta lankidetzat atalen, Facebook orrialdearen eta Twitter sare sozialaren bidez.
- Helburua: **soziolinguistikaren eremuko ikerketa, garapen, berrikuntza eta ezagutza kudeatzeko proiektuen Internet bidezko zabalkundea** sakonagoa, egunerokoagoa eta irisgarritasun handiagokoa izan dadin gure eduki-sormen lana izango da ardatz eta www.soziolinguistika.org webgunearen proiektuak atalaren, Facebook orrialdearen eta Twitter sare sozialaren bidez.
- Helburua: **Soziolinguistika Telebista kanalean**, proiektuetatik eratorritako multimedia edukiak zintzilikatzea.

Hemen ikus daiteke arlo honetan 2014an egindakoa:

- <http://www.soziolinguistika.eus>
- <http://www.facebook.com/slklusterra>
- <http://twitter.com/slklusterra>
- <http://vimeo.com/channels/soziolinguistikatb>
- <http://issuu.com/skluster/stacks>



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
ELKARTEA**

2014ko MEMORIA